

www.ilanda.eu



**EAJren proposamena
Getxoko Andra Mari auzoko
garapen urbanistikoa dela-eta**

2007/03/02

www.eginbehardugu.com



Andra Mari auzoan egingo den garapen urbanistikoa dela-eta, udalerrian eragindako egoeraz euren jarrera azaldu nahi diete getxoztar guztiei, eta batez ere Andra Mariko auzokideei, EAJ alderdiko hautagaiek. Jarrera hori puntu jakin hauetan oinarritzen da:

1º. EAJ alderdian jakin badakigu egoera horren ondorioz, Andra Mariko auzokide askok zalantza eta kezka ugari dituztela, ez baitakite etorkizunean euren etxeekin zer gertatuko den.

Horrela, EAJ alderdian ez diegu leporatuko auzokide horiei solidarioak ez direnik edota pribilegiatuak direnik, geure auzokideak baitira, eta alde horretatik, eskubide osoa dute bai euren iritzi kritikoak adierazteko baita euren eskubide eta interesen alde egiteko ere.

2º. Era berean, gure udalerriko gazteen artean gaurko etxebizitza eskaera eta etorkizuneko beharrak handiak direla ere badakigu, eta horri erantzun eraginkor eta praktikoa eman nahi diogu.

3º. Udal planeamenduaren moldatze-lana Bilbo metropolitarraren Lurralde Plan Partzialean (LPP) ezarritako erabakien arabera eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera egin behar da. EAJ alderdian uste dugu moldatze-prozesu hori Getxotik bertatik egin behar dela eta horretarako, arazo honetan sartuta dauden eragile guztiek hartu behar dutela parte.

Ondorio guztietarako, ezer baino lehen, EAJ alderdiak udalerrian dabiltzan informazio batzuk argitu nahi ditu:

a) Bilbo Handiko gainerako udalerriek bezala, Getxo ere behartuta dago bere udal planeamenduaren erabakiak hauek definitutako birdentsifikazioaren arabera moldatzera: LPPk eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak; izan ere, biak dira denok betebeharrekoak.

b) Prozesu hau ez da laburra izango. Udalak 2 urteko epea izango du bere araudia LPPko erabakien arabera egokitzeko.

c) Moldatze-lana egin ondoren, sortutako planeamendua 8 urtez ezarriko da, gutxienez. Horrek ez du esan nahi epe horretan osorik garatu beharko denik. Litekeena da garapena denbora askoz luzeagoan egitea.

d) Getxoko Udalak ez du behin betiko erabaki loteslerik hartu Bilbo Metropolitarraren LPParen araberako udal planeamenduko moldatze-lanari buruz. Beraz, gai horri ekiteko aukerak irekita daude.

4º. Hori kontuan hartuta, nabarmendu nahi dugu prozesu hau oinarritik bertatik egiten hasi behar dela, eta ez teilatutik. Hasteko, Udaleko garapen urbanistikoaren diseinurako ezarriko diren funtsezko irizpideak zeintzuk diren erabaki behar da, eta oinarri horretatik irizpideok ordenamendu proposamen jakinetan eratu, ez alderantziz. Azken batean, ezin da etxe bat teilatutik egiten hasi.

Horri dagokionez, argi adierazi behar dugu Getxoko Udalaren Etxebizitza sailetik Ezker Batuak (EB) aukeratutako proposamena ez dela EAJ alderdiko hautagaiek Getxorako nahi duena, eta beraz, ez dugula konpromiso loteslerik euren erabakiekiko, ezta bertan aurreikusten den 8368 etxebizitzako zenbakiarekiko ere. Etxebizitza kopuru honek EBk dauzkan irizpide politikoei erantzuten diela eta LPPk ezartzen dituen betebeharratik urrun dagoela.

Argitaratu den proiektuan agertzen direnak baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten ditu EAJk. Horrez gain udalerrriaren benetako beharrei erantzuna emango diete, etxebizitza horiek.

Begirunez eta zintzo jokatu eta jokatuko dugu alderdi horrekin eta Eusko Alkartasunarekin (EA) egin genuen gobernu-koalizioarekin, baina talde politikoa garen aldetik, argi dago eskubidea ez ezik behar politikoa dugula gure auzokideei geure proposamenaren berri emateko, gobernu-konpromisoari eutsita ere. Are gehiago, Getxorentzat honena delako uste betean aurkezten dugu geure proposamena.

5º. Hortaz, Getxoko EAJ alderdiak argi eta garbi adierazi nahi ditu zeintzuk diren bere proposamenaren funtsezko ildoak, Andra Mariren etorkizun urbanistikoari dagokionez. Hona hemen:

a) Udal planeamentu urbanistikoaren moldatze-lana erreferentzia marko honen barruan egin behar da: Bilbo Metropolitarraren LPPa eta ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Marko horrek eragile, herritar eta erakunde guztiak lotesten ditu.

b) Alde horretatik Andra Mari itxuratzeari ekingo diogu, baina ez dugu etxebizitza multzo -publiko zein pribatu- huts bezala taxutu nahi, baizik eta aukera bat bezala, gaur egungo herritarren eskakizunei erantzungo dien Getxoren diseinu bati aurre egingo dion aukera bezala, horixe baita. Eskakizunak gure gazteek etxebizitza eskuratzea, ingurumena errespetatzea eta kalitatezko hirigintza garatzea daude. Aipatutako hirigintza horrek behar hauei erantzun beharko die: espazio publikoa, berdeguneak, toki irisgarriak, mugigarritasuna, ekipamendu publikoak, kiroldegiak, eskolak, garraiobide publiko hurbil eta eskuragarriak etab.

Gure herritarrek Andra Mari elkabizitzarako eta giza-garapenerako leku atsegina izatea eskatzen dute eta guk horren arabera itxuratu nahi dugu.

Labur esanda, Getxo betidanik bizileku bikaina egiten duten ezaugarriak zaindu eta hobetu nahi ditugu.

c) Horretarako haxe planteatu nahi du EAJk:

-Lurzoru erabilgarria optimizatu, gutxi izateaz gain, oinarrizko baliabide baita. Horretarako nahi eta behar den eraikitze-dentsitatea handiagotu behar da, baina altuera handiko eraikinak alde banatan dituzten kale handiak egin barik. Gure proposamena da Gure proposamena da bloke zabaleko eraikuntz-tipologia behekoa +3/4 altuera batezbestekoa duena.

-Garapenerako hirigintza-eredu bat definitu. Bertan etxebizitza dentsitaterik handienak, Ibarbengoa metro geltoki berriaren inguruan kokatzen dira, Bidezabal eta Berango artean. Horrek ez luke ekarriko inpaktu handirik udalerriko paisaian eta bai abantaila bat: komunikabide publiko ona eta hurbila.

-Garapenerako hirigintza-eredu bat ezarri. Bertan uztartuko dira bizitegia eta jardun ekonomikoa: merkataritza, lanbide liberalak, hirugarren sektoreko jarduerak etab. Hau da, auzo dinamikoa nahi dugu, bertan bizi eta gozatzearaz gain, lan egin ahal den lekua dena eta bizitasunez betetako kaleak dituen.

-Gure gazteentzako babespen ofizialeko etxebizitza nahikoa jarri. Babespen publikoko %75 etxebizitza.

-Udalerrian dagoen hiri-bilbean hazkunde-fase etengabeak ezarri. Hazkunde hori mailakakoa izango da, ez aldi berekoa.

-Alde horretatik, EAJtik, gure gogoeta jakinarazi nahi dugu Andra Mari auzoko hirigintza garapenaren mugari buruz. Gure ustez, Bilbo Metropolitarraren LPP aren erabakiei moldatzeko prozesu horri dagokionez, muga hori, Zientoetxe errepidean jar liteke, errepide eta itsas litoralaren artean dagoen espazio hori bere horretan utzita.

-Ingurumen-inpaktuari buruz dagokion ikerketa egin. Horrek bermatuko du garapena indarrean dagoen legedian ezarrita dauden ingurumen-irizpideak kontuan hartuta egingo dela.

-Hirigintza-sarean jardun ekonomiko arlo bat ezarri. (Martiturri Parkea)

6º. Alde horretatik, garapenari ekingo diogu hauen arteko oreka kontuan hartuta: udalerrian eta inguruan dagoen etxebizitza beharrak eragindako interes orokorra, alde batetik, eta prozesu honetan sartuta dauden etxebizitzaren jabeek dituzten interes partikularrak, banaka, bestetik.

Uste dugu biak guztiz bateragarriak direla, eta badaudela hori ahalbidetzen duten formula teknikoak.

7º. Egoera, garapena egiteko epeak eta egun indarrean dagoen HAPOn berrikusketa aztertu ondoren, EAJ alderdiak ez du baztertzeko dagokion berrikusketa egitea, ingurumen-inpaktuari buruzko ikerketa kontuan hartuta.

www.ilanda.eu



Hauxe da EAJren proposamena eta arazo honen barruan dauden eragile sozial guztien ekarpenez aberasteko prest gaude. Horretarako gaurtik bertatik ekingo diegu guztiekin egin nahi ditugun elkarrizketei: auzo-elkarteak eta auzokideak. Gure helburua gai honetaz dituzten iritzia eta proposamenak entzutea izango da, denok baikara beharrezkoak udalerraren etorkizuna definitzeko unean.

Hasierako elkarrizketa-prozesua udal hauteskunderen aurretik garatuko dugu, martxoan eta apirilean zehar, eta horren emaitzen berri emango diegu herritar guztiei. Horrela, praktikan jarriko dugu hurrengo udal hauteskundeotan garatuko dugun proiektuaren zutabe nagusi bat: udal politikak definitzeko eragile sozial guztien arteko elkarlana.

www.eginbehardugu.com

